




Uda osoa eman dut eguzkitan.




“Parker” zundak
igandean abiatuko
du **Eguzkiraino**
eramango duen
bidaia.





Aspaldian euririk egin
ez duenez, lehor-lehor
dago lurra.



Eguzki-sistemako
hirugarren planeta
Lurra da (Lur planeta).



Guztiok ilargitan (ilargi-argitan) geunden,
izar uxoak noiz agertuko zain.



Gizakia 1969ko uztailaren 20an heldu zen
Ilargira.



- Esan dugunez, ilberria, ilgora, ilbetea eta ilbehera dira Ilargiaren faseak.
- Horregatik, ilargi-eklipsea ilbetean baino ez da gertatzen.
- Marea-fluktuazio txikiena izaten da Eguzkiaren eta Ilargiaren eraginak elkarren aurkakoak direnean; hori ilgoran eta ilbeheran gertatzen da.

Astronomiako, Astrologiako,
Astronautikako testuinguruetan eta oro har
testuinguru zientifikoetan, letra larriz
idazten dira *Lurra, Eguzkia* eta *Ilargia*
izenak. Gainerako testuinguruetan, letra
xehez:

eguzkitan egon, eguzkia hartu, eguzkitara irten, eguzkitik
babestu, eguzkia ezkutatu, eguzkia, sartu, eguzkia irten, lurra
eman, lur hartu...


Hitz-elkarketetan ere letra xehez idazten
dira:

eguzki-energia, eguzki-eklipse, ilargi-eklipse, ilargi-fase...

**Eguzki-energia, *Eguzki-eklipse, *Ilargi-eklipse, *Ilargi-fase...*



Zenbaitetan, ezaugarriren batean Lurrarekin, Eguzkiarekin edo Ilargiarekin pareka daitezkeen planetak, izarrak edo sateliteak izendatzeko erabiltzen dira *lur*, *eguzki* eta *ilargi* izenak; kasu horietan ere letra xehez idatzi behar dira.



Bi eguzkiren inguruko planeta-sistema bat aurkitu dute.

**Bi Eguzkiren inguruko...*

Hots, izar horiek planeta-sistema baten parte dira, Eguzkia bezala, eta haien inguruan zenbait planetak orbitatzen dute, eguzki-sistemako planetek Eguzkiaren inguruan bezala.



Saturnoren inguruan orbitatzen duten ilargiak itxura eta tamaina desberdinetakoak dira.

Inork ez zuen espero ilargi horren barruan ozeano bat izango zela.

Hots, satellite horiek planeta baten inguruan orbitatzen dute, Ilargiak Lurraren inguruan bezala.



Leo konstelazioan aurkitutako exoplanetak bost lurrek adinako masa du.

Zazpi lur dauzkan eguzki-sistema bat aurkitu dute.

Hots, Lurraren tamaina, masa, pisua, ezaugarriak dituzten planetak.